



CONXEMAR 2020

Vigo

Informazio gehiago:

Jon Zabaleta

943 00 02 99

jzabaleta@camaragipuzkoa.com

Data: 2020ko urriaren 6tik 8ra

Tokia: IFEVI azoka gunean, Vigo

Maiztasuna: Urtean behin

Norentzat: Hainbat banaketa kanaletako profesionalak (inportatzaileak/esportatzaileak, banatzaileak, prozesatzaileak, banaketa handia eta HO.RE.CA. kanaleko espezialistak)

Izena emateko: 2020ko martxoaren 13a

Azokaren webgunea: www.conxemar.com

Azokaren izaera

Parte hartzeko baldintzak

Parte hartzeko eredia eta kostua

DEIALDI HONETAN:

Eusko Jaurlaritzarekin parte hartzea

Eskainitako zerbitzuak

Izen emateko formularioa

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, Elikaduraren Euskal Industria kanpoan sustatzen laguntzeko jardueren barruan, **CONXEMAR 2020** azokan Euskadiko enpresen

baterako parte hartzea antolatu du, azokaren hogeitabigarren edizioan.

Azoka **Vigon** egingo da, 2020ko urriaren 6tik 8a arte.





CONXEMAR azokaren izaera

Erakusketa eremua: 38.000 m²

2019 erakusketariak: 749 erakusketari

2019 bisitariak: 37.000 bisitariak, 108 herrialdekoak

Azokaren webgunea: www.conxemar.com

ERAKUSKETARIAREN PERFILA

- Arraina eta edonolako produktu izoztuak merkatu-ratzen dituzten sektoreei zuzenduta, produktu izoz-tuen gaineko estatuko azokarik garrantzitsuentzat eta munduko bigarrentzat jotzen da.
- **CONXEMAR** azoka soilik publiko profesionalera bideratuta dago, eta banaketa kanaletan liderrak diren erosle kopuru handi bat erakartzen du.
- 2019an 749 erakusle izan ziren, 38.000 metro koadro baino gehiagoko erakusketa esparru batean, eta 108 herrialdetako 37.000 bisitari baino gehiago joan ziren.
- Euskadiren presentzia 120 metro koadroko esparru batean elkartu zen, eta bertan 12 enpresa sartu ziren.

BISITARIAREN PERFILA

- Hainbat banaketa kanaletako profesionalak (inportatzaileak/esportatzaileak, banatzaileak, prozesatzaileak, banaketa handia eta HO.RE.CA. kanaleko espezialistak).
- Sektoreak: Handizkakoak, inportatzaileak, esportatzaileak, eraldatzaileak, fabrikatzaileak, banatzaileak, hozkailuak, makineria, industria laguntzailea (hotza, enbalajeak, plastikoak, etab.), akuikultura.

Edizio zenbakia: 22. edizioa

Azokaren ordutegia:

Urriaren 6, asteartea, eta 7, asteazkena 10:00tik 18:00ra

Urriaren 8, osteguna 10:00tik 16:00ra

Erakusketa eremua: 38.000 m²

Erakusketariak 2019an: 749 erakusketariak

Bisitariak 2019an: 37.000 bisitariak baino gehiago

Parte hartzeko konpromisoa EAEn egindako produktuak Ebaluazio-inkesta

Parte hartu nahi duten enpresa ekoizleek Euskal Autonomia Erkidegoan izan beharko dute egoitza soziala, eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Elikadura Industrien Erregistroan inskribatuta egon behar dute.

AZOKAREN AURRETIK

- Enpresaren ordezkari baten aldetik joateko konpromisoa eta kuota ordaintzea; beraz, EAEko pabiloian sartuko dela jakinarazten denetik ezingo da ekitaldian baja eman.
- Halabeharrezko kasuetan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea erreserbatzen du enpresak aurkeztutako arrazoiak baloratzeko eta, behar bada, ordaindutako zenbatekoaren portzentaje bat itzultzeko.
- Muntatzen den egunean enpresak derrigor egon behar dira, esaten zaien orduan merkantzia jasotzeko, eta beraien erakustokien dekorazioa amaitzeko, jardunaldia hasi baino lehenago.

AZOKAN ZEHAR

- Euskal Autonomia Erkidegoko produktuak baino ezingo dira erakutsi. Ezin izango da, inola ere, beste autonomia erkidego batzuetako produkturik aipatu, ezta aurkeztu ere.

- Standetan azokako egun guztietan eta zabalik dagoen ordu guztietan eman behar da arreta.
- Enpresa batek azokaren ordutegi ofizialean standean arreta emateari uzten badio, salbuespenezko arrazoi justifikaturik gabe, azokaren hurrengo ediziorako lehentasunezko eskubidea galduko du (izena ematearen hurrenkera, etab.). Haren eskariari bakarrik erantzun zaio baldin eta leku librerik badago izena emateko eta ordaintzeko datetan egindako gainerako eskari guztiei erantzun eta gero. Halaber, enpresa batek edo batzuek stand hutsik uztearen ondorioz antolakuntzak zigorren bat jartzen badio Eusko Jaurlaritzari –parte hartze bateratuaren antolatzailea den heinean–, zigor hori berehala jasanaraziko zaio arau haustea egin duen enpresari edo enpresei.
- Azoka amaitzerakoan produktu guztiak behar bezala jaso eta standeko elementuak entregatu, jaso ziren egoera berberetan.

AZOKAREN ONDOREN

- Ebaluazio inkesta egin –bete eta entregatu behar ko da, azoka amaitzerakoan.

PARTE HARTZEKO EREDUA

2020ko **CONXEMAR** edizioan Eusko Jaurlaritza 120 m²-ko stand batekin egongo da presente, interesa duten euskal arrantzaren industriako enpresak hartzeko.

Euskadi Basque Countryko stand-a erakunde ofizialen *E Hallean* egongo da.

Parte hartzeko aukera bakarra eskaintzen da:

- **Stand INDIBIDUALA** eredua

PARTE HARTZEKO KOSTUA

CONXEMAR 2020an, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saitetik Euskal Autonomia Erkidegoko lehen sektorearen produktua eraldatu eta merkaturatzen duten enpresen parte hartzea bultzatuko da.

Daukaten sailkapenaren arabera, enpresek dirulaguntza bat ala beste jasoko dute parte hartzeak dakarren kostua ordaintzeko. Enpresa bakoitzak zer motatakoa den egiaztatu beharko du.

Horretarako, nahitaezkoa da, izena ematean, lehengaien jatorria egiaztatuko duen **Zinpeko Aitorpen bat aurkeztea, sinadura zein zigilurekin**.

Euren produktuak jatorri izendapen, AGB edo kalitate egiaztatuko marka ofizial baten pean erregistratuta dauzkaten enpresek ez dute bete beharko aitorpen taula hori. Zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrarako onesprenak baimendu besterik ez dute egin beharko.

Enpresen sailkapena

1. MOTAKO ENPRESA

Batez ere Euskadiko lehengai hornitzen diren enpresak. Enpresak produktuaren jatorria egiaztatu beharko du.

Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen dirulaguntza **%70ra artekoa** izango da, eta kostuak honela geratzen dira:

Stand INDIBIDUALA: 1.744,5 € + %21 BEZ = 2.110,84 €

2. MOTAKO ENPRESA

Euskadin behar duten lehen sektoreko produkzioirik egon ez eta Euskaditik kanpoko lehengaiak erabiltzen dituzten enpresak.

Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen dirulaguntza **%50ra artekoa** izango da, eta kostuak honela geratzen dira:

Stand INDIBIDUALA: 2.907,5 € + %21 BEZ = 3.518,07 €

3. MOTAKO ENPRESA

Euskadin behar duten lehen sektoreko produkzioa egon arren Euskaditik kanpoko lehengaiak erabiltzen dituzten enpresak.

Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen dirulaguntza **%30ra artekoa** izango da, eta kostuak honela geratzen dira:

Stand INDIBIDUALA: 4.070,5 € + %21 BEZ = 4.925,3 €

OHARRA: Parte hartzeko kuota ordainketa bakarrean egingo da.



Eusko Jaurlaritzarekin parte hartzea

Izen-emate formularioa

Ordainketa agiria eta Zinpeko Deklarazioa

Izen-emate epea: 2020ko martxoaren 13a

Parte hartu nahi baduzu, eta leku kopurua mugatua denez, gomendatzen dugu lehenbailehen izena emateko formularioa betetzea eta ordainagiria bidaltzea, Jon Zabaletari: jzabaleta@camaragipuzkoa.com

Enpresa parte hartzaileen hautaketa izena emateko dokumentuan jasotzen diren hurrenkeraren arabera egingo da. Zuen eskaera kontuan hartzeko, hau egin behar duzue:

IZENA EMATEKO FORMULARIOA BETE

Formularioan eskatzen den informaziotik datuak zehazki transkribatuko dira, azokaren katalogo ofizialerako eta prestatzen diren gainerako elementu promozionaletarako.

ORDAINKETA AGIRIA BIDALI

Ordainketa banku transferentzia bidez egingo da.

Kontu zenbakia: ES49-3035-0179-61-1791069900 (LABORAL KUTXA) HAZI Fundazioaren izenean.

Kontzeptua: "**Enpresaren izena + CONXEMAR 2020**"

HAZI Fundazioko Finantza Departamentuak dagokion zenbatekoaren faktura igorriko du, izena emateko epea amaitu eta parte hartzea baieztatu eta gero..

Izena emateko epea: 2020ko martxoaren 13a

ZINPEKO DEKLARAZIOA BIDALI

Izena ematen duten enpresek **lehengaien jatorriari buruzko Zinpeko Deklarazioa** sinatuta eta zigilua jarrita aurkeztea beharrezkoa da.

Izena ematearen formalizazioa Parte hartzeari uko egin

GARRANTZITSUA: Izen ematea formalki egindakotzat jotzeko, **IZENA EMATEKO FORMULARIOA** behar bezala beteta eta **ORDAINAGIRIA** eta **ZINPEKO DEKLARAZIOA** bidali beharko dira, izen ematearen datan, ondorio guztietarako, ordainketa egin den eguna agertuko delarik.

Eskatutako dokumentuak bidaltzeak **EZ DU ESAN NAHI** enpresak Eusko Jaurlaritzaren standean parte hartuko duela, izan ere, gutxieneko enpresa kopuru bat egon behar da hori egiteko. Eusko Jaurlaritzak izena ematearen onarpena jakinaraziko du.

ENPRESAK FAKTURA JASO ETA GERO, HAU DA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PABILOIAN SARTU DELAKO JAKINARAZPENA JASO ETA GERO, PARTE HARTZEARI UKO EGITEN BADIO, ORDAINDUTAKOAREN %100 GALDUKO DU.

Halabeharrezko kasuetan baino ez, antolakuntzak eskubidea erreserbatzen du enpresak aurkeztutako arrazoiak baloratzeko eta, behar bada, ordaindutako zenbatekoaren ehuneko bat itzultzeko.

Enpresek ordaindutako zenbatekoak itzultzeko kasu hauek baino ez dira kontuan hartzen:

- Enpresa erakusleek eskatutako gunea Azokaren Antolakuntzak Eusko Jaurlaritzari esleitutako gunea baino handiagoa bada, hautatu ez diren enpresek eskubidea izango dute aurrez izena emateko kuota itzultzeko.
- Eusko Jaurlaritzak halabeharrez edo nahiko partaiderik ez dagoelako parte hartzea bertan behera uzten badu, enpresek eskubidea izango dute ordaindutakoaren %100 jasotzeko.

- 1) Espazioa kontratatzea
- 2) Stand-aren dekorazioa
- 3) Merkantzien garraioa

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, HAZI Fundazioaren bitartez, zerbitzu hauek eskainiko ditu:

ESPAZIOA KONTRATATZEA

Espazio promozional batekin parte hartuko da, eta hori enpresa ko-erakusle bakoitzerako pertsonalizatutako stand indibidualetan banatuko da.

STAND-aren DEKORAZIOA

Standa apaintzeko dekorazioa eta oinarrizko altzariak uniformeak izango dira EAEko erakusle guztientzat, eta, edonola ere, hau egongo da::

Stand Indibiduala (horma banatzaileekin): mahaia eta 3 aulki, erakusmahaia, enpresaren errotulua, konexio elektrikoa eta biltegi partekatua.

*** OHARRA:** *Standetako oinarrizko altzarietan, elementu elektrikoetan edo elektrizitateko beharretan egin beharreko aldaketa oro –horien hazkundera edo aldaketa eragiten badu– erakusketakide bakoitzak zuzenean kontratatuko du, eta bere gain hartuko du gehitutako kostua, dekoratzaileak zuzenean fakturatuko diona.*

MERKANTZIEN GARRAIOA

Eusko Jaurlaritzak merkantziaren bidalketa bateratu bat antolatuko du esleitutako garraiolari ofizialak adierazten duen lekutik merkantzia standean bertan entregatu arte.

Garraiolariak egingo du merkantzia bidaltzearen kostuaren faktura eta enpresa erakusleak ordainduko du oso-osorik.

Bere garaian, esleipena duen enpresa garraiolariaren datuak emango dira.

Esaten zaien orduan, enpresak derrigor egon behar dira merkantzia jasotzeko, eta beraien erakustokien dekorazioa amaitzeko, ekitaldia hasi baino lehenago.

Adierazitako orduan merkantzia jasotzera agertzen ez diren enpresek zigorra jasoko dute.

- 4) Hotz kamerak eta beste etxetresna elektriko batzuk
- 5) Katalogo ofizialean txertatzea
- 6) Euskadiren stand-a mantentzeko lanak

HOTZ KAMERAK ETA BESTE ETXETRESNA ELEKTRIKO BATZUK

Hotz kameren eta beste etxetresna elektrikoaren alokairua erakuslearen kontu izango da.

Hala ere, Eusko Jaurlaritzak koordinatuko du zerbitzu horren kontratazioa, eta hornitzaileak zerbitzuak zuzenean erakusleari fakturatuko dizkio.

AZOKAREN KATALOGO OFIZIALEAN TXERTATZEA

Eusko Jaurlaritzak egin beharreko tramite guztiak egingo ditu azokara joaten diren enpresa erakusle guztiak azokaren antolakuntzak argitaratzen duen katalogo ofizialean agertzeko; bertan, ekitaldiko erakusle guztiak agertzen dira erregistratuta (izena emateko fitxan jasotako datuak agertuko dira).

Informazio hori, halaber, atzerriko erosleekin bilera agendetan parte hartzeko interesa adierazi duten enpresak hautatzeko erabiliko da.

STANDA MANTENTZEKO LANAK (garbiketa, elektrizitatea, ura, etab.)

Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen ditu garbiketako zerbitzu orokorrak, elektrizitatea, ura... eta, oro har, stand egoki mantentzeko lanak.

Stand bakoitzerako potentzia elektrikoko tope batzuk eta gehieneko kontsumo batzuk egongo dira, eta horren berri jakinaraziko zaie erakusketakideei parte hartzea prestatzeko tramiteak hasten direnean. Enpresa erakusleren batek tope horiek gainditu nahi baditu, kostua bere gain hartu behar du.

